

Nola iritsi: Iruñetik: Irunerako errepidetik, Belaten barrena Donezteberaino Iparraldetik, eta Gipuzkoatik: Irunen barrena, Iruñera doan errepidea hartuta



tean. Paseo polit eta arrunt lasaia da, Bidasoa ibaia-
ren ertzetik doana. Inguruko paisaiaz gain, ibaiko
antaparak eta izokinentzako eskalak ikusten ahal
dira. Era berean, Malerreka eta Bortzirietako eskual-
deetako hainbat herri eta auzo bisitatzeko parada
dugu, hala nola Doneztebe, Sunbilla, Berrizaun, Le-
saka —argazkian, Lesakako Kaxerna dorretxea eta
Onin errioa—, Bera eta, azkenik, Enderlatsa.

Ibilbide osoa egin nahi ez izatekotan, Nafarroako
Arantza, Igantzi, Etxalar eta Lapurdiko Sara, Azkai-
ne, Senpere beste zenbait herri hagitz gertu gera-
tzen dira.

aldizkaria

Caroline Phillips kantariarekin elkarriketa eta AEKren auzia aipagai

Aizu! hilabetekariaren urtarrileko zenba-
kian, Ipar Euskal Herrian bizi den Caroline
Phillips kantari kanadarrarekin elekatu dira.
Gisa berean, Espainiako Garzon jupeak AE-
Kren kontra abiatutako auziaz mintzatuko
dira. Bestalde, Kepa Junkeraren txikitako
kontuak eta Arantzazuko artzain eskolaren
berri dakartzate, besteak beste.

Argitaratzailea: **AEK**



minutuko laburmetraia bat?'

Bigarren Zikloko, Informazio
Zientzietako edo Arte Ederretako
Ikus-entzunezko Adarreko
lizentziadunentzat. Aurkezteko azken
eguna: urtarrilaren 26a.
Montehermoso kultur zentroan, edo
Leioako Campuseko Informazio eta
Gizarte Zientzietako Ikus-entzunezko
Komunikabide eta Publizitate Saileko
idazkaritzan.

HAZPARNE. Sofrologia tailerra.

Asteazkenetan arrastiriko 19.00etan,
Xuritea ostatuan. Informazio
gehiagorako, dei 05-59-374236
telefonora (Madalein Petrikorena).

IRUÑEA. IPESeko hainbat

ikastaro: 'La economía y sus
mitos', La cuestion nacional en
España', literatura eta
dokumentazioa, psikologia eta
hezkuntza, umeen
psikomotrizitatea... eta abar.
IPES elkarteak (San Migel karrika, 8).
948-225991.

Udaletxeko Eraikuntza Eskola- Lantegia.

16-24 urteko gazteendako, etxegile,
arotz eta hargin lanbideak ikasteko
matrikula zabalik. Ikastaroak bi urte
iraunen du. Soldata eta lan kontratua
egingo da. Informazio gehiago,
948-132719 telefonoan.

Eguzki Irrati librean parte

hartzeko deialdia. Irratian
kolaboratu edo parte hartu nahi duten
guziendako. Asteleheneretik
ostegunera, 19.00etatik 21.00etara
Nabarrerria kaleko 6. atariko 1.
etxebizitzan galdegin.

Esperanto ikastaroak.

Astelehenero, 19.00etan, Iturrakako
zentro sozio-kulturalean. Argibide
gehiago: 948-275951.

SESTAO. Txalaparta, alboka, pandero eta txistu ikastaroak.

Zugararmurdi euskal taldeak
antolatuta. Informazio gehiago nahi
izanez gero, 94-4954777 telefonoan.

ZUMAIA. Literatura lantegia.

Ana Urkizaren eskutik. 25 orduko
ikastaroa, bi ordu eta erdiko saiotan
banatua. Urtarrilaren 20tik aurrera,
10.00etatik 12.30era. Foronda Kultur
Etxean. Argibide gehiago: 943-
865025. (Udaletxeko Euskara
Zerbitzua)

lehiaketak

ARRASATE. Ipuina, poesia,

erakusketa

Allande Sokarros | **BARKOXE**

Baionako Atalante zinemako
erakustaretoan ikusgai egonen
dira hil honen azken eguna arte
Barkoxen (Zuberoa) bizi den
Gonzalo Etxebarria margolaria-
ren obrak. Erakusketaren estre-
naldia atzo egin zen, eta berare-
kin solas egiteko aukera izan ge-
nuen.

■ Zenbat margolan izanen di- ra ikusgai?

Hogeita hamar bat, tamaina ez-
berdinak. Haietarik bat-
zuek duela zenbait urte eginda-
koak dira, eta beste batzuk, al-
diz, iaz margotutakoak.

■ Gai edo ildo zehatz bat an- tzeman daiteke zure margo- lan hauetan?

Betiko ildo beretik nabil. Haria
da gizakia bere ingurugiroan eta
bi elementu edo munduaren bi
osagai horien arteko loturak, ha-
rremanak bata bestearekiko
kontrajartzeak. Dialektika hori
naiz azaltzera eta barnatzera en-
tseatz nire pinturan, baina ho-
ri hitzetan zehaztea nahiko zaila
dela uste dut. Elementu plastiko
eta bisualen bitartez nire barne
gogoak agertzen ditut, baina
ikusliarrari dagokio interpreta-

GONZALO ETXEBARRIA PINTOREA

«Zuberoan bizitzeak eragin handia du nire margogintzan»



DE PRADA-SAMARUTI

zioa egitea. Bakoitzak berea egi-
ten du.

■ Dagoeneko badira urte anitz Zuberoan bizi zarela. Horrek garrantzirik izan du edo badu ere oraindik zure margogintzan?

Jakina baietz. Eguneroko gau-
zak bisualki eta espiritualki
agertzeko ahalegin horretan,
Zuberoan bizitzeak zinezko ga-
rrantzia dauka niretako. Oso sa-
konki eta indartsuki bizi dudan
zerbait da.

■ Ipar Euskal Herrian bizitze- rat behartua izan zara, zure konpromiso abertzaleagatik. Alderdi hori antzeman daite- ke zure margogintzan?

Ziur aski, bai. Baina, erran neza-
ke hori dela elementu bat, beste
askoren artean. Sentiberatasu-
na ez da atal bakar batean oina-
rritzen, baizik eta orokortasune-
an.

■ Uztaro arte tailerreko sor- tzaile eta kide zara. Zer lan egiten duzu sail honetan?

Jende helduei margogintza eta
marrazkigintza ikastaroak ema-
ten dizkiet astearte arratsero.
Larunbat goizean, berri, zize-
langintza tailer batean dihardut,
Goanes Etxeberriarekin batera.

**komikia, bertso paperak,
euskalki grabazioa eta irrtari
erreportajea.** Lehiaketa hauetan
Leintz bailaran bizi, lan egin eta
ikasten duen 17 urtetik beherako
guztiek har dezakete parte. Adin
hortatik gora, Debagoiena guztira
zabaltzen da parte hartzea. Idazlanak,
hiru kopian, tarte bikoitzez eta
orrialdearen alde bakarretik idatzita,
makina edo ordenagailuz aurkeztu
behar dira. Lan guztiak leloarekin
aurkeztu behar dira, eta datu
pertsonalak beste gutunazal batean
gordeta bidali behar dira. Helbide
honetara bidali behar dira: AED
ELKARTEA, XIV. Arrasate lehiaketak.
Pablo Uranga 4, behe, 20500
Arrasate (Gipuzkoa). Lanak
bidaltzeko azken eguna: otsailaren 5a

BURLATA. Lehen Tribial Txapelketa. Orreaga Elkarte, Ikastolen Elkarte, eta Sortzen Ikasbatuaz elkarteek antolatua.

Argiak kaleratutako 'Gure Mendia'
tribial jolasa erabiliko da. Parte
hartzaileek elkarte, institutu edo
ikastola baten izenean egin beharko
dira. Talde bakoitzak gehienez bi
bikote aurkeztuko ditu. Finala Axular
Elkartean jokatu da, urtarrilaren
27an. Informazio gehiagorako: 948-
128111 (asteartean 19.30etik
21.30era), edo 948-237464 (Josema
Urrotz).

EIBAR. Antzerki gidoi eta artikuluen lehiaketa. Eibarko Narruzko Zezen taldeak antzerkiarekin zerikusirik duen edozein gai hizpide dela, gidioak eta

artikululu lanak egiteko deialdia
luzatu du. 25 urteko
beherakoarentzat. Euskaraz eta
espainolez egin daiteke. Otsailak 19
baino lehen eman beharko dira lanak
Eibarko Lan Unibertsitatean.

GASTEIZ. Euskal Film Labor Onenaren lehiaketa. Film laburrek 2000an ekoizitakoak behar dute. Otsailaren 9a baino lehen bidali lanak Vital-Kutxako Fundaziora. Saria 500.000 pezetako izango da.

HONDARRIBIA. Inauterietako Kartel Lehiaketa. Zeinahi parte hartzten ahal du, teknika librean. Neurria 70x50 zmkoko izango da, bertikalean. 'Hondarribia-Inauteriak 2001' leloa jarri behar da. Lanak urtarrilaren 22a eta 23a bitartean Zuloaga Etxean aurkeztuko dira,

egilearen sinadurarik gabe, eta
atzealdean lelo bat idatzita. Horrekin
batera, kartazal itxi batean kanpoan
lelo bera, eta barrenean egilearen
datuka jarriko dira. Argibide
gehiagorako: 943-644300.

HERNANI. 2001eko Inauteriak iragartzeko Kartela. Hernaniar guztientzat irekita dago. Kartelak beharrezkoa du Hernaniko Inauteriak 2001 leloa jartzea. Entregatzeko epemuga urtarrilaren 26a izango da. Sari bakarra 40.000 pezetakoa izango da. Lanak Biteri Kultur Etxean entregatu dira. Behar izanez gero, hantxe eskatu informazio gehiago.

IRUÑEA. Sex Haizegoa IV. Pintura Lehiaketaren. 18 urtetik goitikoentzat. Neurriak 60x100 zmkoko dira. Lanak Sex Haizegoan

aurkeztu behar dira: Gonzalez Tablas
3., 31003, Iruñea. Datu pertsonalak
beste sobre batean aurkeztu. Lanak
emateko epea 2.001. urtarrilaren 31n
bururatuko da.

UHAITE-IRUÑEA. Logotipo Lehiaketa. Gazteen Etxea eta Kultur Etxeko logotipoak egiteko. Saria 50.000 pezetakoa izanen dira. Informazio gehiagorako deitu 948-333431 telefonoratu.

ZARAUTZ. XIX. Xabier Lizardi Literatur Saria. Lanak urtarrilaren 19a baino lehen aurkeztu behar dira, honako helbidera: Zarauzko Udala, Euskara Zerbitzua, 20800 Zarautz. Lanen luzera ezingo da izan hamabi orrialde baino gutxiagokoa. Saritutako lana Erein argitaletxeak argitaratu emango du.